

Karroza, Konpartsak, Atoiak eta antzeko ibilgailuen eraikuntza eta erabilpenerako segurtasun zehaztapenak

ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Iñauterietako egiturak eraikitzeko plataformen neurriak mugatuak izango dira ekitaldiaren segurtasuna mantendu, eta indarrean dagoen udal-ordenantzan ezarritakoaren araberaren arautuko dira.


Erregimen berezia: gehienezko altuera 4 metrokoa.

Talde batek neurri hauek gainditu nahi baditu, udal teknikarien baimena beharko du. (Idatziz aurkeztu.)

EGITURA EDO PLATAFORMEN **3 KATEGORIA** EZBERDIN ZEHAZTEN DIRA

- ◆ **1. Kategoria:** KARROZA
- ◆ **2. Kategoria:** KONPARTSA
- ◆ **3. kategoria:** BESTE BATZUK: 1. eta 2. kategoriak baino neurri txikiagoko ibilgailu edo atoiaren gainean eraikitako dekorazio-egitura, motor dun izan daitezkeenak edo motorrik gabekoak.

1. KATEGORIA



Gehieneko dimentsioak:

Luzera:

Ibilgailu artikulatuetan, gehienez 10,00 metro.

Ibilgailu zurrunek ≤ 10,00 metro (3.Irudia)

Zabalera: 3,50 metro

Lurretik gorako altuera: 4,00 metro.

Gutxieneko dimentsioak:


Plataformaren gutxieneko neurriak:

Zabalera: 2,50 metro


Luzera: 7,00 metro

Altuera lurretik: 1,00 metro

2. KATEGORIA



“Segurtasun ziri bat eduki ibilgailua geldirik dagoenean ipintzeko”



Gehieneko dimentsioak:

Luzera:

Ibilgailu artikulatuetan, gehienez 7,00 metro.

Ibilgailu zurrunean $\leq 10,00$ metro (3.Irudia)

Zabalera: 2,540 metro

Lurretik gorako altuera: 4,00 metro.

Gutxieneko dimentsioak:


Plataformaren gutxieneko neurriak:

Zabalera: 2,00 metro

Luzera: 3,00 metro




Altuera lurretik: 0,35 metro

(3. IRUDIA) IBILGAILU ZURRUNAREN GAINEKO MUNTAIA



3. KATEGORIA

BESTE BATZUK: 1. eta 2. kategoriak baino neurri txikiagoko ibilgailu edo atoiaren gainean eraikitako dekorazio-egitura, motor dun izan daitezkeenak edo motorrik gabekoak.



Eraikuntza teknika aholkuak

Egitura

1. Egituraren elementuak plataformari lotzeko, torlojuak eta/edo soldadura erabili.
2. Ez erabili lotura itsasgarririk.
3. Egitura eraikitzeko erabilitako materialek muntatu beharreko dekoratuaren pisuarekin eta neurriekin bat etorri behar dute.
4. Eskuaira, tenkagailu eta abarrekin indartu.
5. Ez da egon behar ertz bizi edo zorrotzik.



“Ererikoak saihesteko, erabili hesi babesleak plataforma edo atoiaren bazterretan ”



Dekoratuak

1. Egituraren gainean muntatutako dekoratuak zehaztutako neurrien barne egin eta hartzen duen pisua kontuan izan.
2. Gainditu behar badira, zati desmuntagarriak egin.
3. Garraiatzekoan, desmuntatu egitura-tik.
4. Dekoratuak zati hegalgarririk baditu, hezurduraz egin edo egoki lotua
5. Segurtasunagatik, plataformatik kanpo, ez utzi zintzilkaririk edo partaideen edo ikusleen erori edo kolpe hartzeko modurik dagoen zatirik
6. Dekoratuaren elementuak egiturari lotzeko, torlojuak eta/edo soldadura erabili.
7. Pabiloitik irten edo kokagunetik bueltatzerakoan, **berrikusi** dekoratua ondo dagoen, bidean elementurik erori ez dadin.

8. Dekoratuak, ahal dela, suarekiko erresistenteak diren materialekin edo sua ahalik eta gutxien karga dutenekin eraikitiko dira.
9. **Arreta berezia** jarri dekoratuan edo gertu dauden argiak, lanparak edo goritasun-puntuak kokatzerakoan, suterik ez sortzeko.
10. Ez da egon behar ertz bizi edo zorrotzik.
11. Ahal dela, eskailerak ez ipini plataformako neurriz kanpo, edo desmuntagarriak egin. Ezinezkoa bada, ezkin zorrotzak ez edukitzea zaindu eta lehen mailari itxitura egin.
12. Dekoratuak **EZ DU INOIZ** gidariaren ikuspena oztopatu behar, ez aurreko kristala edo haizetakoaren bidez, ez kanpoko atzerako ispiluen bidez.
13. Dekoratuak, maila desberdinetan ez erortzeko perimetroa **ziurtatu beharko du beti**, hesi babeslea edo hesi-efektua egiten duena dekorazioa erabiliz egiturari finkatuta, eta abar.

Instalazio elektrikoak

1. Instalazio elektrikoak erabili beharreko elementuez gain, beharrezko babes-elementuak ipini (fusibleak, etengailu diferentziala, etab.).
2. Instalazio elektrikoak egiturari edo dekoratuari finkatuta egon behar du, eta ahal dela, egurats zabaletik isolatuta.
3. Urarekin kontaktuan egon daitezkeen (adibidez, euria) elementuek, estankoak izan beharko lukete eta gutxienez

IP65 kategoriakoak izan.

4. Instalazioko kable guztiak finkatuta eta/edo hodituak egotea komeni da.
5. Azaleko-entxufeak edo entxufe-anizkunek ere finkatuta egotea komeni da.
6. Entxufe-anitzak beraien artean ez konektatu.
7. Koadro elektriko bat instalatu behar bada, egiturari edo dekoratuari finkatu.
8. Kableen arteko loturak erregletekin egin eta behar bezala babestuta utzi.

9. Ibilgailua lekualdatu eta maniobratu bitartean, sistema elektrikoak deskonektatuta eduki.

10. Instalatutako elektrizitate-sorgailuak egitura edo plataformari behar bezala lotuta eduki, erregai-potoa edo bidoia bezala, eta taldekoak ez diren pertsonen irismenetik kanpo.

“Gomendagarria da 3kg eta 9 kg arteko (ABC hautsa) balio anitzeko hautsezko itzalgailu bat edukitzea ”



Iñauteriak 2020

Xedea

Tolosako Udalak "Iñauteriak 2020" izendaturiko data eta orduetan programatutako ekitaldietan parte hartzen duten elementu mugikorrek eraikitze eta zirkulatzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak ezartzeko arauak ezartzea. ELEMENTU MUGIKOR HORIEK ALDI BATERAKO ALDATZEN ETA/EDO ETETEN DUTE ALDI HORRETAN EZARRITAKO EGUNGO ZIRKULAZIO-ARAUDIA, BETIERE EZARRITAKO PERIMETROAREN BARRUAN, Iñauterietako Ibilgailuen Katalogoa (IIK) oinarri hartuta. (Karroza, Konpartsa, Atoaia, Gurdi, Karro, etab.)

Kontrol prozedura

Tolosako Udalak teknikari ikuskatzaileak eta/edo enpresa laguntzaile bat izendatuko ditu, iñauterietako dekoratua duten egituren erakuntzaren segurtasuna kontrolatzeko eta gainbegiratzeko.

Iñauteriak hasi baino lehen, Tolosako Udalak zehaztuko ditu noiz eta non aurre-ikusiko diren egiturak, dekoratuak eta plataformak, eta kontrol-erregistroa bete (2. eranskina)

Zehapen prozedura

Parte-hartzaileek ez badiote jaramonik egiten oinarri hauei eta/edo udalaren edo haren ordezkarien jarraibideei, udal honek zehapen-prozedurari ekin ahal izango dio, eta zehapen ekonomikoak eman ahal izango ditu, edo, udal honek diruz lagundutako talde baten kasuan, emandako laguntza kendu ahal izango du, diru-laguntzak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

GOGORATU BEHARREZKOAK

DEBEKATUTA DAGO

Parte hartzen duten taldeek edozein jardura edo parodiatan, elementu piro-teknikoak edo antzeko-erabiltzea



ak

DEBEKATUTA DAGO

Ikatzeko barbakoak, egurra, plantxa elektrikoak, labetxoak, gas-kanpina edo antzekoak erabiltzea.




DEBEKATUTA DAGO

Ezin da animaliarik iñauterietako dekoratuaren edo egituraren barruan egon, eta ezin dute jarduketetan parte hartu.



DEBEKATUTA DAGO

Pertsonen kalteak eragin edo segurtasunaren aurkakoak diren objektuak, aparrak, eta beste edozein motatako substantziak botatzea.



TOLOSA  udala
Kultura | Festak | Gazteria



90dB Gehienez